



adabaki 'txaplata, oihal puska'	«...barberu berritsuak, jostunak adabakietan espezializatuak, tertuliazale lizunak.»	(60)
aida 'idiei esaten zaiena, aurrera egiteko'	«'Aida!' esango zuen akuiludunak , idi beilegiek mugimendu nagi eta astunak egingo zituzten itsasbazterreko bidetik behera...»	(70)
aire batean 'ziztu bizian, ato baten'	«...komunistak ilaran ipini eta banan-bana, aire batean bidaliko nituzke denak Josafat aldera...»	(39)
aireango 'airekoa'	«Txalupak ere baziren han elizako sabaian zintzilik, aireango nabigazioan...»	(38)
aitarenka 'aitaren eginez'	«Buruak makur, aitarenka , Jaungoiko on bat imajinatzeko ahalegin itzela egiten nuen...»	(107)
akuiludun 'behien gidaria'	«'Aida!' esango zuen akuiludunak , idi beilegiek mugimendu nagi eta astunak egingo zituzten itsasbazterreko bidetik behera...»	(70)
albolaguna 'ondokoa, laguntzaile hurbilena'	«'Don Juan Manuel Garaikoaren albolaguna ni?」»	(8)
alborengo 'biriketako gaixotasuna, pulmonia'	«Makal zegoen, alborengo zuen, hagatik eztula, eta hala ere erre egiten zuen...»	(94)
aldarri egin 'proklamatu, boz goraz adierazi'	«'Ba gerrak garbituko ditu gauzak!' aldarri egin zuen aitak ezkarazetik oso errime.»	(9)
apar 'bitsa, lerdea'	« Aparra zeriola hitz egin zuen, eskuaz arabeskoak egin eta hatz erakuslea altxatuz.»	(88)
aratz 'garbia'	«...bultzaka irabaziz lortu genuen bitartea hildakoaren bota beltzei eta esku aratzei erreparatzeko.»	(43)
arbendola 'almendra'	«Atea itxi eta halako sunda bat barreiatu zen etxe guztian, kamamila urarena, edo esne gatzatuarena, edo arbendolarena ...»	(55)
arbi 'baratze-landarea, naboa'	«...eta katu batek ogerleko bat balio zuen. Bi libra arbi bi pezetatan ordaintzen zen.»	(98)
artean 'oraindik (irag.), ordurako'	«...bere aitaren gorputz handia ezinka zegoen artean hantxe bertan, ondo ikusten uzten ez zigula pregoia...»	(25)
atabal 'danborra'	«Danboliteroak isilune bat egin zuen, gero isiltasuna atabal hotsez urratu, tan tan tatan...»	(24)
ateko banda 'itsasora ematen duen aldea'	«...arrantzontziak buelta eman zuen eta ateko bandarantz abantean abiatu zen, atzetik zetorren destruktorearen aurrez aurre. 'Bou bat da' esan zen jendeak.»	(68)
atoan 'berehala'	«'Erdu atoan hona!」»	(30)
atunburu 'tontolapikoa, tentela'	«Eta Josemariren etxean ez zuen inor salbagarririk iritzi. Eta tiro hotsen imitazioak egiten zituen, ardotara jausten zen atunburu hark.»	(39)
azkoin 'gezia'	«Tiragomaz, Josemarik torloju bat eta nik azkoina jaurti genituen.»	(86)
barreiu jaurti 'sakabanaturik, alde guztietara bezala'	«Olatuak ia hantxe bertan apurtzen ziren zarata handiarekin, zipriztinak barreiu jaurtiz.»	(92)
baztanga 'gaixotasun infekziosoa' (viruela)	«...nire begien aurre-aurrean, baztangak zulaturiko aurpegi ikaragarria ikusi nuen...»	(87)
beharrean 'lanean'	«...arrantzaleak euren loihartzekoekin jardun ziren baporeetan beharrean ...»	(17)
berbertan 'hantxe bertan'	«Eta berbertan geratu zen Felix, txibierro frijituak jateko gogoarekin, eta preso karlistak defenditzen.»	(77)
betondoko 'begi ondoan kolpea'	«Bultzaka eta indarka hasi ginen laster, alde batetik belarrikoak eta bestetik betondokoak (...) burukadekin eta okotzekoekin.»	(22)



bizarra egin 'bizarra moztu, afeitatu'	« Bizarra egin , bazkaldu, amari eta bioi musu epel bana eman eta alde egin zuen...»	(16)
bokarta 'antxoa'	«...gure aita Don Juan Manuel Garaikoaren bokartaren negoziantea zelako...»	(15)
boldrongo 'traketsa, lodikotea'	«Ea hemendik aurrera zer pasatzen den boldrongo hori gabe...»	(8)
bou 'Mediterranioko arrantzontzia'	«...arrantzontziak buelta eman zuen eta ateko bandarantz abantean abiatu zen, atzetik zetorren destruktorearen aurrez aurre. Bou bat da' esan zen jendeak.»	(68)
branka 'itsasontzien aurreko aldea'	«...eta ozta-ozta sartzen, bere branka burdinazko animalia handi baten burua balitz bezala nasaren kontra jotzen.»	(68)
brebiario 'otoitz liburua'	«Kale ilun eta hutsean bere sotana handiarekin eta hulez forraturiko bere brebiarioa eskuan bat-batean agertzean, mamua ematen zuen...»	(35)
bufadaka 'putzaldika, indarrez'	«Eta leihoetatik sualdiak irteten ziren, eta amatatzen zela ematen zuenean sulama gorriak irteten ziren berriro bufadaka .»	(64)
buruko 'almohada, (cojín)'	«Aitak ohean ematen zuen egun osoa, buru azpian hiru edo lau buruko pilatuta.»	(128)
demontre hori 'deabrua halakoa'	«Erdi etxera, demontre hori !!' agintzen zen ozenago.»	(30)
dingilizka 'dilindan, zintzilik balantzaka'	«...nasako harmailan denontzako lekua zegoen gainera, bata bestearen alboan eserita itsasalderantz begira, oinak ur gainean dingilizka airean...»	(23)
dirdira 'distira'	«Bere zapata beltzek balearen bizkarraren dirdira zuten.»	(89)
eder egin 'ondo geratu	«Abadeak erdaraz irakasten zuen dotrina, gobernu berriari eder egitearren , eta lege berriak irakasten zituen.»	(106)
egundoko 'sekulakoa, itzela'	«Berbaldi hanpatu eta luzea egin zuen egun hartan (...) egundoko konbateak izan zirelako eta denetan atera ginelako garaile.»	(88)
erdu 'zatoz'	«'Erdi atoan hona!»	(30)
ernegatu 'amorruzkoa, gogait eginda'	«Atepetik narraz sarturiko berba horiekin esnatu nintzen, eta gero amaren berba ernegatuak entzun nituen begiak zabaldu orduko...»	(7)
errekete 'militar karlista'	« Errekete talde handiak etzaten ziren bazterretan atsedean bila, edo zerbait jaten...»	(82)
errime 'zoli, ozen-ozen'	«'Ba gerrak garbituko ditu gauzak!' aldarri egin zuen aitak ezkaratzetik oso errime .»	(9)
etxerre batzea egin 'erretako etxerako dirua bildu'	«'Etxerre batze egin beharko dugu,' esan zuen batek.»	(66)
ezagun izan 'nabaria izan, begi-bistakoa'	«Ni baino txotxoloagoa zelako, entzun duk eta txaplata esateko moduan ezagun zenez , horixe ni baino txotxoloagoa zela, askozaz ere.»	(11)
ezer-ezer gabe 'batere gabe, bape barik'	«Aberatsak ziren eta ez zeuden ezer gabe bizitzen ohituta, orain geratu ziren lez, ezerezer gabe.»	(66)
ezinka 'balditua, ezertarako balio ez duela'	«...bere aitaren gorputz handia ezinka zegoen artean hantxe bertan, ondo ikusten uzten ez zigula pregoia...»	(25)
gauza izan 'balio izan / kapaz izan'	«'Gauza ez den guztia alde batera kenduta hasiko bagina hobe...»	(99)
gerrari 'gerlaria, burrukalaria'	«...hantxe geratu ginen laster gerrari guztiak aspertuta, nasako harmailan denontzako lekua zegoen gainera...»	(23)
geundu 'lausotua, gardentasunik ez duena'	«...negarrik egin gabe, goizgizonaren begi geunduez ikusi nuen ama esperoan negarrez, eta aita zangorik gabe itzultzen.»	(129)



gogaikarri 'jasanezina, kargantea'	«'Ukuiluko astoak baino zentzu gutxiago duzu!' esan zion amak aitari, ama gogaikarria zen batzuetan.»	(15)
goizgizon 'goiz gizon dutako gaztea'	«...negarrik egin gabe, goizgizonaren begi geunduez ikusi nuen ama esperoan negarrez, eta aita zangorik gabe itzultzen.»	(129)
gorturik 'beroturik, garturik'	«Begiak gorturik . Aurpegi hil pilo bat ikusi behar izan nuen.»	(104)
grabetate 'pisua, astuntasuna'	«Leihoak itxi egiten ziren, eta lainoen grabetatea apartekoa zen, eta haizea gazia zen...»	(53)
gurata 'nahita ere, apropos ere'	«'Gurata ere ez dute horiek gauza onik!' esan zuen.»	(37)
haizeak eman 'gogoak eman, aldikada izan'	«Handiagoa delako horrela kikiltzen bazara, haizeak ematen dion guztietan emango dizu astinaldia...»	(11)
hanpatu 'handinahia, harroa'	«Berbaldi hanpatu eta luzea egin zuen egun hartan (...) egundoko konbateak izan zirelako eta denetan atera ginelako garaile.»	(88)
haren batean 'hor nonbait, gutxi gorabehera'	«'Alde egin badu, konspirazioan ibiliko da haren batean ...' esan zuen beste batek.»	(27)
harpe 'haitzuloa'	«...ez genekien zer zegoen hormaren bestaldean, harpe eta itxitura susmoak besterik ez genituen.»	(134)
hau da hau! '(harridurazkoa) Zein ederra!'	«'Hau da hau etxean egotearen osasuna!', esan zuen ondo arnasa hartuz, kalatxoriz betetako labarretan gustura sentitzen zelako.»	(92)
hodeiertz 'zerumuga, zeruertza'	«Iheslariak, txapel gorrien hodeiertz beldurgarri eta tristea ikusiko zuten atzera begiratzu gero»	(78)
hule 'plastikoa'	«Kale ilun eta hutsean bere sotana handiarekin eta hulez forraturiko bere brebiarioa eskuan bat-batean agertzean, mamua ematen zuen...»	(35)
ikusi batean 'lehenengo begiratuan'	«'Ikusi batean, zapaburua ematen du!' esan nuen.»	(55)
ingurubila 'espirala' (?)	«Eta klasea jarraitu zuen, eta ez zidan zigorrik ezarri. Eta ingurubilak eta zakilak ere marraztu nituen.»	(48)
inoren aurrerako gauza ez izan 'inorekin egoteko egoeran ez egon'	«...kalenturarekin ere bai batzuetan, inoren aurrerako gauza ez zela .»	(130)
insomne 'etengabe itzarrik dirauena'	«...eliza populatzen zuten igeltsuzko, egurrezko eta marmolezko irudi nekatu eta insomnee .»	(108)
iobala 'hari mehe sendoa'	«Bezperan karramarro bat harrapatu eta etxera eraman nuen, iobala batetik helduta ipini nuen karramarro hura mahai gainean paseatzen.»	(91)
irtirin 'neska panpoxa, itxura deigarrikoa'	«...herrriko neskarik irtirin eta apainenak aukeratu zituzten kalera ilaran irten eta, dotore jantzita, txapel gorriekin paseatzeko.»	(100)
itsasoaren banda 'itsaso aldea'	«Eta ondo ikusi genuen itsasoaren bandatik ontzi merkante hura heltzen...»	(67)
itu 'diana, jo-puntua'	«'Destruktorearen kanoiei portuko itua kentzeko,' esan zuen baten batek.»	(68)
itxitura 'erremu itxia, zarratua'	«...ez genekien zer zegoen hormaren bestaldean, harpe eta itxitura susmoak besterik ez genituen.»	(134)
jaurti 'indarrez bota'	«Tiragomaz, Josemarik torloju bat eta nik azkoina jaurti genituen.»	(86)
jipijapa 'sonbreirua, lasto antzeko zegoena'	«Udatiarrak alde egiten ikusi genituen euren arropa zuri, maleta dotore eta jipijapekin .»	(19)
josafat aldera bidali 'hildakoen lekura bidali'	«...komunistak ilaran ipini eta banan-bana, aire batean bidaliko nituzke denak Josafat aldera ...»	(39)



kamamila '(manzanilla)'	«Atea itxi eta halako sunda bat barreiatu zen etxe guztian, kamamila urarena, edo esne gatzatuarena, edo arbendolarena...»	(55)
kedar 'erretako hondakin beltza'	«Aireplanoa hegal bat erdibituta eta albo horretara etzanda zegoen, apurtuta eta erreta, burdin okertuak eta kedarra dena.»	(75)
kiribil 'biribilean biltzen dena'	«...eta inor topatu gabe igo nintzen zurezko zurubi ilun eta kiribiletik gora gorengo ganbara esturaino.»	(64)
koipekeria 'lausenguzko tratamendua'	«...galdetu zidan, uniforme beilegi berri-berriarekin, bere betiko koipekeriarekin .»	(109)
kristal akuatiko 'kristal lodia'	«Felix agertu eta bere kristal akuatikoetan zehar ikusi zituen gauzak.»	(27)
lain 'beste, adina'	«'Jateko lain badugu.'»	(90)
lako 'bezalako, moduko'	«...zeuk zaindu behar duzu ama eta ume txikia lakorik esan gabe.»	(15)
lantzoi 'pepelo, lerroa / arrain mota'	«...Juan Manuel nire belarri mindutik tiraka ari zen. ' Lantzoi! ' esan nion.»	(12)
lar '-egi, oso'	«'Ez dakit zuek ere lar santuak zareten baina!'»	(37)
lardats 'nahasia,	«Ez zen beldurra, hotzikara umel eta sakona zen sentitzen zena iluntzeko lasterketa lardatsean .»	(31)
leba 'garrantzi, kategoria'	«' Leba handiko gizona da,' esan zuen aitak.»	(7)
libra 'kilo erdi'	«...eta katu batek ogerleko bat balio zuen. Bi libra arbi bi pezetatan ordaintzen zen.»	(98)
litxarkeria 'txibiskeria	«'Hara ba hemen, mutikoak, nafarrak bere buruari hainbesteko inportantziarik eman gabe Irundik ekarri dizuen litxarkeria ...'»	(62)
loihartzeko 'buzoa, lanerako arropa'	«...arrantzaleak euren loihartzekoekin jardun ziren baporeetan beharrean.»	(17)
loka 'tinkatu gabe, solte bezala'	«Pistola gerrian gorde nuen, bulto handiegia egin eta loka geratzen zen arren.»	(21)
lorrin 'nahasia'	«Itsasoaren aldera, zerua eta itsasoa gris lorrinean nahasten zituen behelainoak.»	(133)
mantar 'oihala, trapua'	«Ama batzuk umeak besoetan, mantarretan bilduta.»	(70)
matraka 'kalapita, eztabaida garratza'	«Hala hasi ziren udako egun hartan ere aita eta amaren arteko matrakak etxean, goizean goiz.»	(7)
meta 'piloa'	«Gerraren irabazleak ziren eta, hil asko eta tristura meta handiak zeuden artean.»	(122)
mihimen 'zuhaixka malgua'	«Arrebak egunetik egunera hartu zuen gorputza. Han egoten zen besotxoak gora eta behera higitzen mihimen txirikordatzeko sehaskan.»	(57)
mistika 'ideala'	«Baina guk karlismoaren mistika genuen...»	(98)
narraz 'arrastaka'	«Atepetik narraz sarturiko berba horiekin esnatu nintzen, eta gero amaren berba ernegatuak entzun nituen begiak zabaldu orduko...»	(7)
nasa 'kaia, moila'	«...eta ozta-ozta sartzen, bere branka burdinazko animalia handi baten burua balitz bezala nasaren kontra jotzen.»	(68)
okaran 'arana, fruitua'	«Bihotza okaran moduan lehertuko zitzaioa pentsatzen dut, odola mineralaren sendotasunez tratatuko zitzaioa zainetan.»	(105)



okotz 'kokotsa'	«Bultzaka eta indarka hasi ginen laster, alde batetik belarrikoak eta bestetik betondokoak (...) burukadekin eta okotzekoekin .»	(22)
ondo 'benetan, agerikoa'	«'Gizona, baina gizon ondo sai, perru eta arratoia!' esan zuen Josemarik barreka.»	(75)
osin 'zulo sakona'	«Futuroaren printze txikiak, inozentziaren osin tristetik hasten ginen berehala geurearen alde aldarrika...»	(102)
paratu 'jarri, kokatu'	«Eta han paratu zen bera denon aurre-aurrean, burua gora, taketa baino artezago.»	(100)
pikor 'alea'	«...han masusta gorri ugari zegoen lekuan (...) baina batzuk umotuta egongo ziren, beltz-beltzak, pikor ugari eta gozoak.»	(116)
salabardo 'sarea duen kirtendun tresna'	«Han arroken azpian salabardoaz arrain txikiak harrapatzen genituen...»	(124)
salbagarri 'salbatzeko modukoa'	«Eta Josemariren etxean ez zuen inor salbagarririk iritzi. Eta tiro hotsen imitazioak egiten zituen, ardotara jausten zen atunburu hark.»	(39)
sats eginda 'leher eginda, neka-neka eginda'	«'Sats eginda nago!' ernegatzen zen.»	(131)
segan 'kodainarekin'	«Gerra hor dabil edonon oraindik, gerra, gerra segan baletor bezala...»	(138)
sunda 'usain sarkorra, giroan dagoena'	«Atea itxi eta halako sunda bat barreiatu zen etxe guztian, kamamila urarena, edo esne gatzatuarena, edo arbendolarena...»	(55)
taket 'estaka'	«Eta han paratu zen bera denon aurre-aurrean, burua gora, taketa baino artezago.»	(100)
tankeraz egon 'umorez egon, gogo onez'	«Baina gutxi hitz egiten nuen berarekin, batez ere tankeraz egoten ez zenean.»	(131)
txatal 'zattia'	«Nafarrak patrikatik elgorriaga txokolatea atera zuen eta, oso kontent, txatal bana eman zigun.»	(62)
txibierro 'txibiaren zatiak, rabak'	«Eta berbertan geratu zen Felix, txibierro frijituak jateko gogoarekin, eta preso karlistak defenditzen.»	(77)
txirikordatu 'trentzatua, txirikordan bildua'	«Arrebak egunetik egunera hartu zuen gorputza. Han egoten zen besotxoak gora eta behera higitzen mihimen txirikordatuzko sehaskan.»	(57)
umotuta 'helduta'	«...han masusta gorri ugari zegoen lekuan (...) baina batzuk umotuta egongo ziren, beltz-beltzak, pikor ugari eta gozoak.»	(116)
urdanga 'emagaldua'	«'Urdanga baten moduan akabatuko zaitut!' esan zuen ozen aitak.»	(132)
urkulu 'arku itxurako zurezko euskarria'	«'Tiragoma berriak egin behar ditu urkulu gogor eta goma luzeekin,' esan zuen Josemarik.»	(19)
zabartu 'baldar bihurtu, ganoragabetu'	«'Garaitu arren, ez dugu zabartu beharrik,' esan zuen batek arrainaren bakardadearekin.»	(81)
zakarki 'modu latzean, bortizki'	«...banan-bana harrapatzen ikusi genituen urrundik, zakarki igoarazten zituztela destruktoreira gainera.»	(69)
zatar 'itsusia eta desatsegina'	«'Baina hemen infernua, eta barkatu esatea, apur bat zatarra behar da izan...»	(38)
zurrapada 'zigarroari ke ahokada bat atera'	«Behin, bere zigarroari zurrapada bat hartzen utzi zigun Josemariri eta bioi, bera erretzen hasi orduko...»	(94)
zurubi 'biribilean igotzen den eskailera'	«...eta inor topatu gabe igo nintzen zurezko zurubi ilun eta kiribiletik gora gorengo ganbara esturaino.»	(64)